



Jokin Izar de la Fuente  
Orokieta Herri Eskola (Zarautz)  
2. Saria Lehen Hezkuntza Fisio (Enbata)  
**Argazkiak: Sara Santos**

## **“Lanak jolas moduan egitea baloratzen dute neska- mutilek”**

Zarauzko Orokieta Herri Eskolako 25 ikasleko talde batek Lehen Hezkuntzako kategorian – Fisio- bigarren saria lortu zuen. Jokin Izarrek, taldearen arduradunak, Kosmodisea 2007-2008 edizioan izan duen parte-hartzea oso positiboa izan dela dio eta, bere ustez, ekimen honetan ikasleei gehien gustatu zaiena bideo-grabazioa, IKT tresnak erabiltzea, ordenagailuaren eta Interneten erabilera eta lanak jolas moduan egitea izan da.

Jokin Irizarrek adierazi du Kosmodisearen bidez, ikasleak era dibertigarrian lan egin dezaten bultzatzen dela, eta jorratu den gaiari eta teknikari buruz asko ikasi dutela. Ikastetxeko IKT sailetik, *“lan taldean aritzeko kohesioa, parte-hartzea, IKT teknikak erabiltzea eta ikastea”* lortzen dela gaineratu dute.

Orokietan Herri Ikastetxeak datorren edizioan parte hartuko dutela adierazi dute eta, agian, lehen hezkuntzan mailaketa berria beharko dela, berau bi kategoriatan banatuz (misioen eta denboraren banaketa).

- Ideiak, iritziak, iradokizunak, oharra, kritikak...
- *Aurten egin den denboraren banaketa egokia izan da: misio gutxiago eta denbora gehiago; Kursoaleko ekitaldia lehen urtekoa baino hobea; gurekiko segimendua, arreta eta erantzuna zoriontzekoa izan da (hau da, Itsaso eta Lorearen lana).*

*Elementu positibo gisa, ekitaldiari publizitate gehiago eman behar zaiola adierazi nahi dugu (irabazle nahiz galtzaileei), hala egunkarietan nola telebistan. Gainera, misiorako denboraren banaketan kontuan hartu beharko lirateke Aste Santuko oporrak, aurten bi aste gutxiago izan baititugu hirugarren misiorako eta justu xamar ibili gara. Azkenik, adierazi behar da ikastetxe hiru talde hartu dugula parte eta lanak nahiko antzekoak izan direla. Jaso dugun saria (mikrokatea) izugarria izan denez, gainontzeko bi taldeentzat mingarria iruditu zaigu.*

